

# Antisimetriaren hipotesia vs buru parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian

Iñigo Arteatx • Xabier Artiagoitia • Arantzazu Elordieta (arg.)

eman la zabal rasu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN  
ZERBITZUA  
SERVICIO EDITORIAL

# Aurkibidea

Hitzaurrea: zenbait ohar antisimetriaz, euskal sintaxiaz eta liburu honetan dagoenaz <i>Iñigo Arteatx, Xabier Artiagoitia eta Arantzazu Elordieta</i> . . . . .	11
Hitz hurrenkera eta NZ-mugida: azalpen parametrikoko baten bila <i>Javier Ormazabal, Juan Uriagereka eta Myriam Uribe-Etxebarria</i> . . . . .	25
Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezkerreko buruak euskarari <i>Jon Ortiz de Urbina</i> . . . . .	51
Euskal perpausaren oinarritzko <i>espez-buru-osagarri</i> hurrenkeraren aldeko argudio batzuk, <i>Bill Haddican</i> . . . . .	69
OA hizkuntzak: oinarritzko hurrenkeraz eta hurrenkera eratorriez <i>Arantzazu Elordieta</i> . . . . .	97
El movimiento del verbo en un análisis antisimétrico del euskera <i>Luis Vicente</i> . . . . .	131
Izen sintagmaren hurrenkera: osagarriak aurretik, buruak gero <i>Xabier Artiagoitia</i> . . . . .	157
Simetria ala simetria eza? Hitzordenaz hausnarrean <i>Itziar Laka</i> . . . . .	199

# **Euskal perpausaren oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkeraren aldeko argudio batzuk\***

Bill Haddican

University of York

## **Laburpena**

*Artikulu honek euskal perpausaren sintaxiaren azterbide antisimetriko (Kayne 1994) bat proposatzen du. Lehendabiziko zatian argudiatzen da azterbide antisimetriko batek azterbide ez-antisimetriko nagusiek (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1990, Elordieta 2001) baino hobeto azaltzen dituela partikula modal-ebidentzialen hitzordena eta besarkaduraren jokabidea. Bigarren zatian, aditzen osagarrien hitzordenaren analisi antisimetriko bat proposatzen dut. Bereziki, Haddican (2004) eta Vicente (2005) lanei segituz, objektuak aditzaren gaineko kasu/komunztadura posizioetara igotzen direla onartzen dut. Hala ere, posizio hauek Haddican (2004) lanean proposatu zen baino gorago direla aldarrikatuko dut.*

## **0. Sarrera**

Lan honen helburu nagusia euskal perpausak oinarrizko *espez-buru-osagarri* ordena duelako hipotesiaren aldeko argudio batzuk aurkeztea da. Lehendabiziko zatian, ezezko eta baiezkoko perpausen arteko desberdintasun batzuen analisi antisimetriko (Kayne 1994) bat aurkezten dut. Argudiatuko dudan bezala, analisi honek partikula modal-ebidentzialen hitzordena eta besarkaduraren jokabidea hobeto esplikatzen ditu azterbide ez-antisimetriko nagusiek baino (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1990, Elordieta 2001).<sup>1</sup> Bigarren zatian, aditzen osagarrien hitzordenaren analisi antisimetriko bat proposatzen dut. Bereziki, Haddican (2004) eta Vicente (2005) lanei segituz, objektuak aditzaren gaineko kasu/komunztadura posizioetara igotzen direla onartzen dut. Hala ere, posizio hauek Haddican (2004) lanean proposatu zirenak baino gorago direla proposatuko dut. Analisi alternatibo honek antisimetriari eusten dio baina Haddicanen (2004) analisiak dituen arazo enpiriko eta teoriko batzuk saihestuko ditu. Azterbide honek, zuzena baldin bada, ondorio argi bat dauka: mugitutako osagai batzuk

---

\* Hemen agertzen den materialari buruzko iruzkinengatik eskerrak eman nahi dizkiet Xabier Artiagoitiari, Arantzazu Elordietari eta *Antisimetria vs. buru-parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian* jardunaldietan parte hartu zutenei. Bestalde, Xabier Artiagoitiari zor zaizkio eskerrak lan honen euskarazko bertsioarekin laguntzeagatik. Testuan barrena honelako laburdurak erabili dira: Apl = aplikatiboa; Asp = aspektua; baiezt = baieztapena; Dnb = denbora; FL = Forma Logikoa; Lag = (aditz) laguntzailea; ezezt = ezeztapena, Pol = polaritate.

<sup>1</sup> Antzeko proposamen bat Haddican (2004) lanean agertu zen.

ez daudela *izoztuak*; hau da, ez dagoela mugitutako XS osagaien barnetiko mugimenduaren debeku orokorrik (*pace* Ormazabal, Uriagereka eta Uribe-Etxebarria 1994, Müller 1998:124, Koopman eta Szabolcsi 2000:38).

## 1. Partikula ebidentzialak eta hitzordena baiezko eta ezezko perpausetan


### 1.1 Baiezko eta ezezko perpausetako hitzordenak

Euskal gramatikan gehien ikertu diren fenomenoetariko bat da perpausen polaritateak nolako eragina duen hitzordenaren gain. Baiezko perpaus nagusietan, hitzordena A-Lag da; ezezko perpausetan, berriz, Ezezt-Lag-A:

- (1) Miren *etorri* da.
- (2) Miren *ez* da etorri.

Era biko buruak onartzen dituen hurbilketa ez-antisimetriko bat erabiliz, Ortiz de Urbinak (1989), Lakak (1990) eta Elordietak (2001) azterbide berdintsuak proposatzen dituzte fenomeno honen berri emateko. Hain zuzen ere, hizkuntzalari hauek proposatzen dute laguntzailea aditzaren eskuinean sortzen dela –baiezko perpausetan azalean agertzen den bezala– eta ezezko perpausetan igo egiten dela. Lakak (1990) (3a)-rako ematen duen egitura, adibidez, (4)-an agertzen da:

- (3) a. Ez da etxea erori.
- b. Etxea erori da. (Laka 1990:19, 29)



(Laka 1990:29)

Azterbide honetan, laguntzailea (*da*) ezeztapen buruari (*ez*) adjuntatzen zaio. Baiezko perpausetan, berriz, ezeztapen burua ez da agertzen eta laguntzailea, beraz, ez da igotzen. Eratorpen honek (3b)-n agertzen den hitzordena eragiten du.

Jarraian, partikula ebidentzialen besarkaduraren jokabideari dagozkion datu batzuk aurkeztuko ditut. Datu hauek iradokiko dute batetik azterbide hau ezin daitekeela zuzena izan, eta, bestetik, elementu hauen hurrenkera baiezko perpausetan –hots, Lag-AS hurrenkeradunetan– beraien oinarrizko hurrenkera dela.

## 1.2 Partikula ebidentzialak

Euskarak zenbait partikula ebidentzial eta modal ditu: *omen*, *ei*, *bide*, *al*, *ote*, *ohi*. Partikula hauen zerrenda euskalkiz euskalki aldatzen da, baina euskalki gehienek dute morfema hauetako bat edo beste.

Elementu hauen jokabide sintaktikoa berezi xamarra izaten da gutxienez bi alorretan. Bata beraien hitzordenari dagokio. Ezezko perpausetan, elementu hauek baino ezin dira agertu ezeztapenaren eta laguntzailearen artean, (5) eta (6) adibideetan erakusten den bezala:

- (5) Ez omen zuen urik topatu.
- (6) \*Ez zoritxarrez zuen urik topatu.

Era berean, baiezko perpausetan, aditzaren eta laguntzailearen artean elementu hauek baino ezin dira agertu:

- (7) Bazkalduko bide zuen.
- (8) \*Bazkalduko zoritxarrez zuen.


Elementu hauen bigarren ezaugarri bitxia beraien besarkaduraren jokabidea da: ezezko perpausetan partikula hauek *ez*-en gainean hartu behar dute besarkadura, (9) eta (10)-ean ikusten den bezala:

- (9) Ez al zuen urik topatu?

(10) Ez omen zen Oiartzunen jaio, # baina ez omen zen kanpoan jaio ere.<sup>2</sup>

Batetik, (9)-an *al* galderazkoak perpaus osoaren (eta, hortaz, ezeztapenaren) gaineko besarkadura dauka. Bestetik, (10)-ean bigarren esaldia pragmatikoki desegokia da, eta honek *ez*-en eta *omen*-en besarkaduraren ordena *omen* > *ez* dela iradokitzen du. Besarkaduraren ordena *ez* > *omen* izan balitz, bigarren esaldia egokia izango zen; hau da, “ez dute esaten Oiartzunen jaio zela, baina ez dute esaten Oiartzundik kanpo jaio zela ere” uler zitekeen denera. Hala ere, (10)-ean norbait ez omen zela inon jaio da irakurketa arrunta (eta, horrenbestez, bitxia).

Elordietak (2001) partikula ebidentzalen hitzordenari dagokion azterbide ez-antisimetriko bat proposatzen du. Hain zuzen ere, Elordietak L-proiekzioek *osagarri-buru* ordena dutela proposatzen du. Partikula ebidentzialak eta modalak proiektio buru-azken batean (ModS) AS-ren eta laguntzailearen artean batzen dira, eta buru-adjunzioaren bidez igotzen dira laguntzailera. Eratorpen hau (11)-n erakusten da:




(Elordietak (2001:183) lanetik hartuta)

Elordietak ez du jorratzen partikula hauen hitzordena ezezko perpausetan. Hala ere, beste ezezko egiturei emandako azterbidean oinarrituta, eratorpen sinesgarri bat jarraian garatzen dudana izan liteke. Lakari (1990) jarraituz, Elordietak Ezeztapen Sintagma buru-lehen bat laguntzailearen gainetik kokatzen du. Lehenik eta behin, partikulak laguntzaileari adjuntatzen zaizkio. Gero, beraz, laguntzailea Dnb-ra eta Ezeztapenera igotzen denean, partikula ere berarekin darama (Ortiz de Urbinari (1994) jarraituz, laguntzaileak lexikalizazio-baldintza bat bete behar duela onartzen du; baldintza hau buru-adjunzioaren bidez aditzarekin edo *ez*-ekin bete daiteke. Ezezko perpausetan, aditzak ez du baldintza hau bete behar –*ez*-ek lan hori egin

<sup>2</sup> Datu hauek Xabier Artiagoitiak aipatu dizkit. Eskerrak eman nahi dizkiot honegatik, eta datu hauei buruzko oharrengatik ere.

dezakeelako– eta aditza *in situ* gelditzen da). Proposamen hau, (12)-an eta (13)-an azaltzen da:

(12) Ez omen zuen urik topatu



Azterbide honek partikulen hitzordena esplikatzen badu ere, ez du berauek ezezko perpausetan duten besarkaduraren jokabidea esplikatzen. Arestian ikusi dugun bezala, partikula hauek *ez*-en gainean hartu behar dute besarkadura (12) adibidearen tankerako perpausetan. (13)-an ikusten den eratorpenean, ez dago argi nola esplika daitekeen hau, besarkadura ordenek FL-ko o-komando erlazioak islatzen dituztela onartzen duen teoria batean. Alderantzizko besarkadura ezin da berreraikitzearen bidez azaldu, eratorpen honetan partikulek ez baitute inoiz *ez* o-komandatzen. Partikulak ezeztapenaren gaineko posizio batera FL-n igotzen direla onartzea ere problematikoa da, partikulak sakonean sartuta baitaude laguntzailearen buru-adjunzio egituran.

Beste aukera bat *omen* baino gorago perpausaren ezkerreko periferian batzea da, (14)-an bezala:

(14) [<sub>ModS</sub> *omen* [<sub>EzS</sub> *ez* [<sub>DnbS</sub> Lag ...

Azterbide honetan, *omen* > *ez* irakurketa *omen*-ek *ez* FL-n o-komandatzen duelako esplikatzen da. Hala ere, Forma Fonetikoko mugimendua erabili ezean, *ez-omen-Lag* hitzordena esplikatzea zaila bihurtzen da orduan.<sup>3</sup>


<sup>3</sup> Antzeko beste aukera bat Elordietarena (1997) da: *omen*-en azpian elkartzen da *ez* eta *ez-omen-Lag* hitzordena buru-mugimenduaren buruz eratoritzen da. Gero, 1.4 atalean, bihurtuko gara proposamen honetara.

Beraz, era biko buruak onartzen dituen hurbilketa ez-antisimetriko bat erabiliz eta ezezko perpausetan laguntzailea buru-mugimenduaren bidez *ez*-era igotzen dela ere onartzen bada, badirudi Elordietaren (2001) azterbidea modu bakarra dela partikulen hitzordena esplikatzeko.

### 1.3. Irtenbide baterantz

Azterbide alternatibo bat garatzean, oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkera onartuko dut Inflexio Sintagmarako (Ormazabal, Uriagereka and Uribe-Etxebarria 1994, Elordieta 1997, Vicente 2005). Azterbide hau gureganatzeak, aditza aditz laguntzailearen azpian batzen dela onartzearekin batera, esan nahi du ezezko eta baiezkoko perpausen hitzordenen desberdintasunak ezin direla ezezko perpausetako laguntzailearen buru-mugimenduaren bidez azaldu. Aitzitik, ezezko perpausen ordena –hots, Laguntzailea-Aditza– oinarrizko ordena dela onartuko dut, eta baiezkoko ordena –Aditza-Laguntzailea alegia– AS igotzen duen mugimendu batek eragiten duela.

Lehendabiziko urrats bat bezala proposamen hau garatzean, buelta gaitezen partikula ebidentzialen ezaugarri batzuetara. Arestiko (5)-(10) adibideetan ikusitako datuek Cinquek (1999: 5. kap) italieraz ezeztapenak adberbio ebidentzialen gain duen alderantzizko besarkadura azaltzeko egiten duen proposamena gogoratzen dute: ezeztapen morfema Ezezt-Sintagmaren espezifikatzailean batzen da, eta gero igotzen da partikulen gaineko posizio batera. Demagun euskal *ez*-ek antzeko eratorpen bat duela. Bereziki, demagun *ez* espezifikatzaile bat bezala elkartzeko dela eta partikulen gaineko posizio batera mugitzen dela. Proiekzio hau Pol(aritate) Sintagma dei dezagun. Eratorpen hau (15)-ean erakusten da:





Azterbide honetan, beraz, alderantzizko besarkadura ezeztapenaren nahitaezko berreraikitzearen bidez, *ez* bere oinarrizko posiziora –partikula ebidentzialen azpian– nahitaez berreraikiaz alegia, azal daiteke.

Baiezko perpausetan, berriz, aditza ebidentzialen ezkerrean agertzen da, (16)-an erakusten den bezala:

- (16) a. Zorrak [ordain-du ahal] omen dituzte.  
 b. Zorrak [ordain-du nahi] omen dituzte.  
 c. Zorrak [ordain-du behar] ote dituzte?  
 (Ortiz de Urbina 1989: 129)

Banaketaren ohiko testek *ez* eta AS azaleko posizio berberean daudela iradokitzen dute. Lehenik eta behin, eskuin aldean, ezin da ezer ageri elementu hauen eta laguntzailearen artean, partikula ebidentzialak izan ezik; (17)-an erakusten den bezala ez subjektuak ez adberbioak ezin dira ageri hauen artean:

- (17) a. Laguntzen (\*Miren/\*maiz) omen zuen.  
 b. Ez (\*Miren/\*maiz) omen zuen laguntzen.

Ezkerretara, fokuek eta NZ-sintagmek *ez*-en edo AS-ren ondo-ondoan ageri behar dute:<sup>4</sup>

- (18) a. Nork/JONEK (\*Miren) ikusi du ( $\sqrt{}$ Miren)  
 b. Nork/JONEK (\*Miren) ez du ikusi ( $\sqrt{}$ Miren)

Antza denez, posizio honetako beste elementu bat baiezko *ba-* da (Laka 1990); (19)-an ikusten den bezala, *ba-* dagoenean, AS ez da igotzen:

- (19) Jon bada etorri. (Laka 1990: 101)


---

<sup>4</sup> Hala ere, hiztun batzuentzat, NZ-adjuntu batzuek ez dute elementu hauen ondo-ondoan ageri behar, (i)-an erakusten den bezala:

(i) Zergatik (Jonek) esan du garagardoa edango duela? (Uriagereka 1999)

Datu hauek ikusirik, demagun aditza biltzen duen sintagma bat PolS-ren espezifikatzaileira igotzen dela baiezko perpausetan; ezezko perpausetan, berriz, gertuago dagoen *ez* (ezeztapenaren espezifikatzailean) mugitzen da posizio honetara.<sup>5</sup> Demagun, bestalde, – Lakaren (1990)  $\Sigma S$  proposamenaren izpirituan– buru honek [baieztapen] tasun bat duela. Ezeztapen Sintagmarekin paralelismoa eginez, baieztapen buru honek baieztapen morfema isil bat izango du bere espezifikatzailean eta morfema honek [espez, PolS] gunera garraiatzen du bere arreba-adabegia. Proposamen hau argitzeko, (21)-ak (20) adibidearen goiko zatiaren eratorpena erakusten du:<sup>6</sup>

(20) Etorri omen da.



Orduan, azterbide honek partikula ebidentzialen hitzordenaren berri ederki ematen du, elementu hauek laguntzailearen azpiko posizio batean sartu gabe.<sup>7</sup> Are gehiago, azterbide ez-antisimetrikoek ez bezala, azterbide honek partikula ebidentzialen eta ezeztapenaren arteko besarkadura erlazioak azalpen erakargarri batez hornitzen ditu; hau da, *ez* berreraikitzen dela bere jatorrizko posiziora, partikula ebidentzialen azpian. Proposamen honek, gainera, ez du buru parametroa erabili behar, eta, beraz, bat egiten du gramatikaren teoria murriztaileago batekin.

<sup>5</sup> Ezeztapenetik PolS-erako mugimendu honek Zanuttinik (1994) proposatuko ezeztapen-mugimenduaren antza du.


<sup>6</sup> Ikus Koopman & Szabolcsi (2000) eta Ndayiragije (1999) buru neutro bat erabiltzen duen antzeko proposamen baterako.

<sup>7</sup> Ikuspuntu kartografiko batetik irtenbide honek erakargarriagoa dirudi laguntzailearen azpiko posizio batek baino (Rizzi 1997, Cinque 1999).


### 1.4 Buru mugimendua eta sintagma mugimendua

Nire aurreko proposamen horrek Elordietarenaren (1997) antza du, honek ere antisimetria ontzat jo eta baiezeko perpausetan aditza laguntzailearen gaineko posizio batera igotzen dela onartzen baitu. Hala ere, Elordietaren proposamenan, aditza buru-mugimenduaren bidez igotzen da, arestian ikusi den azterbidean ez bezala. Hain zuzen ere, Elordietak ezezko eta baiezeko perpausetarako ematen dituen eratorpenak (22)-an eta (23)-an erakusten dira hurrenez hurren:

(22) Ez ei da etorri (G. Elordieta 1997:72)



(23) Etorri ei da. (G. Elordieta 1997:72)



Goiko (22) adibidean, **Konp<sup>0</sup>**-era bidean, *ez* partikula ebidentzialari eta laguntzaileari adjuntatzen zaie (**Konp<sup>0</sup>**-ek ezeztapen operatzaile bat daukala onartzen du Elordietak). (23) adibidean, berriz, aditza adjuntatzen zaio partikulari, **Dnb**-ra bidean. Ortiz de Urbinari (1989) jarraituz, mugimendu hau laguntzaileari sostengu lexikoa emateko beharrak eragiten duela onartzen du Elordietak.

Azterbide honek, beraz, ondo azaltzen du zergatik ageri behar duten *ez*-ek eta aditzak laguntzailearen ondo-ondoan (ezezko perpausetan eta baiezeko perpausetan hurrenez hurren): buru-adjunzio egiturak izanik, mugimendua ez da posible multzo hauen barnerantz. Gainera,

partikulak *ez* baino gorago batzen direnez, azterbide honek *ez*-en eta partikulen arteko besarkadura erlazioen azalpen bat iradokitzen du; hau da, pentsatzekoa da *ez* berreraiki egiten dela partikulen azpian duen bere jatorrizko posiziora (hala ere, Elordietak berak ez ditu besarkadura erlazio hauek jorratzen).

Nolanahi ere, mugimendu hau sintagma- edo XS-mugimendua delako ideiarene aldeko froga AS-ren elipsitik dator. Lakak (1990) adierazi zuen bezala, ezeztapenaren azpiko materiala ezabatu egin daiteke (24) perpausa bezalakoetan:

(24) Marik liburua erosi du eta Peruk ez.<sup>8</sup> (Laka 1990:33)

Gainera, material honek partikula ebidentzial bat eduki dezake:

(25) Jon etorri omen da, baina Maitane ez [\_\_\_].

√ ‘Jon etorri omen da, baina Maitane ez **omen** da etorri’

√ ‘Jon etorri omen da, baina Maitane ez da etorri’

Hau da, (25)-eko lehendabiziko irakurketak iradokitzen du honelako sintagma isil bat:

(26) Jon etorri omen da, baina Maitane ez {~~omen da etorri~~}


(22)-an erakusten den eratorpenean, *ez* ez dago inoiz partikula ebidentzala, laguntzailea eta aditza biltzen dituen osagai batetik kanpo. Beraz, badirudi (22)-ko eratorpenak esan nahi duela (25) adibidearen lehendabiziko irakurketan ezabatzen den materiala ez dela osagai bat.

Elipsiaren arazoaren irtenbide posible bat da *ez* laguntzailearen eta partikula ebidentzialen gainean batzen dela (Elordietaren proposamenan, laguntzailea DnbS-n elkartzen da). Aukera hau (27)-an erakusten da:

---

<sup>8</sup> Lakak (1990) adierazten duen bezala, () ez da osagai-ezeztapena, hau da subjektuen ezeztapena. Honelako egituretan, subjektuak foku irakurketa du, eta *ez* subjektuen aurrean agertzen da, nahi eta nahiez:

(i) MARIK erosi du liburua, ez PERUK.



Hala ere, azterbide honetan zaila bihurtzen da ezeztapenaren eta partikula ebidentzialen arteko besarkadura erlazioak azaltzea. Hau da, eratorpen honetan partikula ebidentzialek ez baitute inoiz *ez* o-komandatzen, nekez ikusten da nola hartzen duten partikulek ezeztapenaren gaineko besarkadura.

Beraz, badirudi elipsi eta besarkadura datu hauek XS-mugimenduan oinarritutako azterbide bat iradokitzen dutela: *ez* partikulen azpian batzen baldin bada, zaila da elipsiaren datuak azaltzen, buru-mugimendu murrizketa bortxatu gabe (Travis 1984). *Ez* partikula ebidentzialen gainean batzen bada, berriz, elementu hauen arteko besarkadura erlazioak azaltzea bihurtzen da arazo.

## 2. Objektuen hitzordenak

Lan honen bigarren zatiak objektuen hitzordenak aztertzen ditu. Hain zuzen ere, Haddican (2004) eta Vicente (2005) lanei jarraituz, objektuak aditzaren gaineko kasu/komunztadura posizioetara mugitzen direla onartzen dut. Hala ere, posizio hauek Haddican (2004) lanean proposatu zen baino askoz gorago direla proposatuko dut. Anlisi alternatibo honek, antisimetria onartzearekin batera, Haddicanen (2004) analisiak dituen arazo enpiriko eta teoriko batzuk saihestuko ditu aldi berean. Hala ere, azterbide honek ondorioztat dakar mugitutako osagai batzuk ez daudela *izoztuak*; hau da, ez dagoela mugitutako XS osagaien barnetiko mugimenduaren debeku orokorrik (*pace* Müller 1998:124, Koopman eta Szabolcsi 2000:38).

### 2.1 Objektuen posizioak eta hondakinaren mugimendua

Euskal objektuak kanonikoki aditzaren ezkerrean agertzen dira. Irakurketa neutro batean – hau da, “Zer gertatu da?” tankerako galdera bati erantzunez– hiztunak normalean aditzaren

ezkerrean nahiago dituzte objektuak, (28a,b) perpausetan bezala. Hala ere, hiztun batzuek aditzaren atzeko hitzordenak ere onartzen dituzte, (28c)-n bezala (Ortiz de Urbina 1989, Elordieta 2001):

- (28) a. Jonek [Mireni egia esan] dio. [baiezkoa]  
 b. Jonek ez dio [Mireni egia esan]. [ezezkoa]  
 c. Jonek ez dio [esan Mireni egia]. [ezezkoa]  
 (Ortiz de Urbina 1989:123)

Aurreko euskarari buruzko lan sortzaile gehienek aditzen osagarriak AS buru-azken batean (edo AS anizkun batean) batzen direla onartu dute (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1990, Elordieta 2001). Elordietak (2001:42), adibidez, egitura hau proposatzen du:

- (29)
- $$\begin{array}{c}
 \text{AS} \\
 \swarrow \quad \searrow \\
 \text{ZO} \quad \text{AS} \\
 \quad \swarrow \quad \searrow \\
 \quad \text{OZ} \quad \text{A}
 \end{array}$$
- (Elordieta 2001:42)

Egitura honen abantaila bat prosodiaren eta fokuarien arteko erlazioari dagokio (Elordieta 2001, Arregi 2001). Kanonikoki, azentu nagusia aditzaren aurre-aurreko osagaiak darama:

- (30) Jonek Mireni txakúrra erakutsi dio.

Honelako perpausetan, hainbat osagai uler daitezke foku bezala: objektu zuzena; objektu zuzena, zeharkako objektua eta aditza dituen osagai bat; eta perpaus osoa, (31)-n erakusten den bezala:

- (31) [Jonek [Mireni [txakúrra] erakutsi] dio.]

Elordietak (2001) eta Arregik (2001) adierazten duten bezala, (31)-koa bezalako egitura batek datu hauek azaltzen lagun diezaguke, baldin eta onartzen badugu, gainera, foku-irakurketa jasotzen duen osagai batek nabarmentasun prosodikoa eduki behar duela, Cinquek (1993) proposatu zuen bezala:

(32) Perpaus bateko fokua(k) azentu nagusia daraman osagaia menperatzen duen edozein osagai izan daiteke. (Cinque 1993).<sup>9</sup>

Hau da, (31)-n, objektu zuzenak darama azentu nagusia, eta beraz foku bezala uler daiteke. Gainera, AS-k ere menperatzen du azentu nagusia daraman elementua (*txakurra*), eta beraz AS-k ere jaso dezake foku-interpretazioa. Noski, KonpS-k ere menperatzen du *txakurra* eta, beraz, hau ere osagai fokalizatua bezala uler daiteke. Hortaz, (31)-ko egiturak, (32)-ko printzipioarekin batera, posible diren foku multzoak ongi iragartzen ditu hitzordena kanonikoetan.

Haddicanek (2004) objektuen hitzordenaren beste azterbide bat proposatzen du, antisimetria eta XS-mugimendua soilik erabiltzen dituen (Koopman and Szabolcsi 2002). Bereziki, perpaus neutroetan –(28a,b) bezala– objektuak aditzaren ezkerreko kasu-posizio batera mugitzen direla proposatzen du Haddicanek, (33)-an erakusten den bezala:

(33) [<sub>KasuS</sub> Mireni<sub>j</sub> [<sub>KasuS</sub> egia<sub>k</sub> [<sub>AS</sub> esan t<sub>j</sub> t<sub>k</sub>]]]

Gero, aspektu-burua gehitzen da, eta honek AS erakartzen du. Puntu honetan AS-k objektuak eraman ditzake ala hondakin bezala igo daiteke objektuak Kasu Sintagmetan utziz. Lehendabiziko aukera honek, (34)-an erakutsita, (28b)-n kako artean agertzen den hitz hurrenkera eragiten du. Bigarrenak, berriz, (28c)-ko beheko zatia eratortzen du, (35)-ean erakusten den bezala. Azterbide honetan, beraz, (28b)-ren eta (28c)-ren arteko desberdintasuna mugitzen den osagaiaren tamainan datza:

(34) [<sub>AspS</sub> [<sub>KasuS</sub> Mireni<sub>j</sub> [<sub>KasuS</sub> egia<sub>k</sub> [<sub>AS</sub> esa t<sub>j</sub> t<sub>k</sub>]]]<sub>l</sub> -n t<sub>l</sub> ]

(35) [<sub>AspS</sub> [<sub>AS</sub> esa t<sub>j</sub> t<sub>k</sub>]<sub>l</sub> -n [<sub>KasuS</sub> Mireni<sub>j</sub> [<sub>KasuS</sub> egia<sub>k</sub> ]]<sub>l</sub> t<sub>l</sub> ]

Ezezko perpausetan, aditza eta beraien objektuak ez dira gero igotzen. Baiezko perpausetan, berriz, hauek biltzen dituen osagai bat PolS-ra igoko da, arestian proposatu den bezala. Mugimendu honek azaleko AS-Lag hitzordena eragiten du (cf. 28a).

Azterbide honek, beraz, (28)-ko hitzordena aldaeren berri ematen du beste nonbait motibatuko mugimendu-motak erabiliz –*pied-piping* edo osagaien garraioa eta *stranding* edo

<sup>9</sup> Itzulpena Elordieta (2004:47) lanetik hartuta.

osagaiak atzean uztea– hain zuzen ere. Gainera, oso teoria murriztaile batekin da bateragarria, proposamen honek ez baitu ez eskuinerako mugimendua, ez buru-mugimendua ez buru-parametroa ere erabiltzen.

Hala ere, proposamen honek gutxienez bi arazo enpiriko larri ditu. Lehendabizikoa hauxe da: antza denez, aditza AspS-ra igotzen baldin bada objektuak eraman gabe (hau da (35)-ean bezala), ezin da gero mugitu. Hain zuzen ere, (36)-ak erakusten du aditza biltzen duen osagaia ezin dela PolS-ra mugitu, objektuak lehen atzean utzi baldin baditu; hau da, objektuak aditzaren eskuinean agertzen badira:

(36) \*Jonek [esan-Ø Miren-i egia] dio.

Antzeko arazo bat modalak dituzten eratorpenen kasuan ere sortzen da. *Nahi* eta *behar* modalekiko perpausetan, aditzak eta beraien osagarriak modalaren ezkerrean agertzen dira kanonikoki, (37)-an bezala:

(37) Jonek ez dio [[Miren-i egia esan-Ø]<sub>i</sub> nahi t<sub>i</sub>.]

Arestian aurkeztu den proposamenaren ikuspuntutik, hitzordena honek aditza eta objektuak biltzen dituen osagai bat modalaren gaineko posizio batera mugitzen dela iradokitzen du. Hala ere, badirudi mugimendu hau ez dela posible aditzak objektuak AspS-ra *garraiatu* ez baditu. Hau da, AspS-rako bidean, aditzak objektuak atzean utzi baldin baditu, aditza gehi objektuak biltzen dituen osagaia ezin da *nahi*-ren gaineko posizio honetara mugitu, (38)-ko datuek erakusten duten bezala:

(38) \*Jonek ez dio [[esan-Ø **Miren-i egia**]<sub>i</sub> nahi t<sub>i</sub>.]

Datu hauek azaltzeko, Haddicanez *konplexutasun iragazki* bat moldatzen du Koopman eta Szabolcsiren lanaren haritik. Berauek antzeko iragazki bat erabiltzen dute holanderatik eta hungarieratik datozen datu berdintsuen berri emateko:

(39) *Euskal konplexutasun iragazkia*: XS bat ezin da mugitu bere osagarria lexikoki beteta baldin badago.



Tresna honek (36) eta (38) perpausetako ezinezko hitzordenak baztertzen ditu. Hala ere, (39)-ko adierazpenak datuak birformulatu baino ez du egiten. Gainera, teoria minimalistaren barruan, oso baldintza arrotza da. Izan ere, oso zaila da ikusten nola adieraz daitekeen (39) gaur egungo mugimenduaren makineriari buruzko oinarrietatik abiatuta: zunda-helburu erlazioak, hurbiltasuna, faseak, etab. Era berean, kopia-teoriaren ikuspuntutik, zaila da ikusten nola bereiz ditzakeen sintaxiak kopiatutako (ber-batutako) objektu bat eta ez kopiatutako (ber-batu gabeko) objektu bat.

Beste arazo bat hitzordena ez-neutroei dagokie. Ortiz de Urbinak (1998) proposatzen duen bezala, fokuak eta NZ-hitzak ezkerreko periferian dagoen foku-proiekzio batera mugitzen baldin badira, nekez ikusten da zergatik ezin diren objektuak fokuari eta aditzen artean ageri (=40a). Hau da, antza denez, objektuek PolS-ra mugitzen den osagaitik atera egin behar dute honelako kasuetan:

- (40) a. {Nork/JONEK} (\*Miren) ikusi du ( $\sqrt{Miren}$ ) (=18)  
 b. {Nork/JONEK} (\*Miren) ez du ( $\sqrt{Miren}$ ) ikusi ( $\sqrt{Miren}$ )

Ez dago argi nola ulertu beharko litzatekeen mugimendu hau.


## 2.2 Bestelako azterbide bat

Azterbide honi jarraituz, demagun objektuak kasu/komunztaduraren proiektioetara igotzen direla (Kayne 1989, Johnson 1991).<sup>10</sup> Hala ere, demagun posizio hauek Haddicanek (2004) proposatuko posizioak baino gorago direla. Bereziki, Laka (1988, 1993) eta Cheng eta Demirdache (1993) lanei jarraituko diet, argumentuak dagokien komunztadura buruaren espezifikatzaile mugitzen direla proposatzean. Lan hauetan adierazten den bezala, argumentuen hitzordena kanonikoak –S(ergatiboa)-ZO(datiboa)-OZ(absolutiboa)– laguntzailearen komunztadura-buruaren ordena –ergatiboa-datiboa-absolutiboa– islatzen du. Datu hauek ikusita, Cheng eta Demirdache-k (1993:74) (41)-ean erakusten den hierarkia proposatzen dute, egitura buru-azken bat onartuz. Egitura honek, beraz, argumentuen

---

<sup>10</sup> Hala ere, Elordietak (2001:3) adierazten duen bezala, azterbide honek ez du argitzen zergatik agertzen diren Postposizio Sintagmak ere (PostS) aditzaren ezkerrean kanonikoki. Hau da, onartzen baldin badugu PostS-ek ez dituztela kasu tasunak, azterbide honek ez du PostS-ek ere zergatik igo behar duten azaltzen.

hitzordena kanonikoa ematen digu; era berean, komunztadura buruen ordena kanonikoa buru-mugimenduaren bidez eratortzen da:



Azterbide honi jarraituko diot komunztadura buru hauen hurrenkera onartuz eta argumentuak dagokien komunztadura buru baten espezifikatzailera mugitzen direla ere onartuz. Era berean, laguntzaileak buru-adjunzioaren bidez eraikitzen direla onartuko dut. Hala ere, proposamen hauetan ez bezala, oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkera erabiliko dut Inflexio Sintagmaren barneko buruetarako.

Proposamen honek, beraz, ez die gaur egungo lan askori jarraitzen, onartzen baitu argumentuekiko komunztaduraren zunda arduradunak ez daudela *Dnb*, *A*, *a* (aditz txikia) edo *Aplikatibo* buruetan, komunztadura buru bereizietan (cf. (41)-eko hiru *Kmz* buruak) baizik. Alde batetik, objektuak igotzen direneko posizioak Inflexio Sintagman oso goian kokatzeko beharrak motibatzen du ikuspegi hau. Hala ere, badirudi bestelako motibazioa ere badela komunztadura buru hauetarako, modalen ezaugarri batzuk ikusita.

Izan ere, datu batzuek *ahal*, *nahi* eta *behar*-en tankerako modalekiko perpausek perpaus bakuneko egitura dutela iradokitzen dute. Hau da, modal hauek ez direla batzen osagarri

infinitiiboak dituzten aditz lexikoen moduan, aditz lexiko nagusiaren gaineko funtzio buru bezala baizik (Wurmbrand 2001, Cinque 2004).

Proposamen honen aldeko datu bat da modalen osagarriek ezin dutela beren ezeztapena eduki, (42) eta (43) adibideetan erakusten den bezala. Perpaus bakuneko azterbide batek datu hauek azaltzen ditu, zeren bestelako testuinguruetan ezeztapen buru bat ez baita posible hain goian buru funtzionalen hierarkian:

(42) \* Ez joa-n nahi dut.

(43) \* Nahi dut ez joa-n.

(44) \* Ez joa-n naiz.

Aitzitik, aditz psikologiko batzuen osagarriek, *-tzea* atzizkia eramaten dutenek, ezeztapena eduki dezakete:

(45) [Nobela erromantikoak *ez irakurtzea*] gustatzen zaio

Osagarri hauek modalen osagarriek baino egitura funtzional aberatsagoa dutela erakusten duen beste froga bat kontrolari buruzko datuetatik dator. Bereziki, osagarri hauek ageriko subjektuak eta kontrola (baina nahitaezkoa ez dena) onartzen dituzte, modalen osagarriek ez bezala (Ortiz de Urbina 1989, San Martin and Uriagereka 2002, Etxepare 2006):

(46) Jonek<sub>i</sub> erabaki du [e<sub>i/j</sub>/Aitorrek traste zaharrak botatzea] (Etxepare 2006)

(47) \* Jonek<sub>i</sub> nahi du [e<sub>i/j</sub>/Aitorrek joa-n].

Era berean, modal hauetariko batzuek objektuen komunztadura eta laguntzailearen aldaketa onartzen dituzte; fenomeno hauek perpaus bakunekoak izaten dira bestelako testuinguruetan (Wurmbrand 2001, Cardinaletti and Shlonsky 2004). Adibidez, (48) adibideak erakusten du, *ahal*-en kasuan, aditzaren argumentu-egiturak erabakitzen dituela laguntzailean dauden komunztadura morfemak; beste horrenbeste esan daiteke laguntzailearen *-izan* vs. *\*edun*– hautaketaren inguruan ere:

- (48) a. *Joan ahal naiz* (ez-akusatiboa)  
 b. *Torrea ikusi ahal dut* (monotransitiboa)  
 c. *Joni liburua eman ahal diot* (ditransitiboa)

Osagarri jokatugabeekin eta *gustatu*-ren tankerako aditzen osagarriekin, berriz, urruneko komunztadura eta laguntzailearen aldaketa nekez onartzen dituzte hiztunek:

- (49) a. Ni gogoratzen naiz [zu etorriko zar]ela.  
 b. \*Nik gogoratzen dizut [zu-ri eman-go dute]la.  
 (50) a. \*[Ni ikustea] atsegin natzaio.  
 b. Ni atsegin natzaio. (Etxepare 2003: 168)


Gauzak horrela, *ahal*, *nahi* eta *behar* aditzaren gaineko funtzio buru bezala batzen direla onartuko dut. Gainera, elementu hauen hitzordenak laguntzailearen azpian batzen direla iradokitzen du, eta hau ere ontzat emango dut. Orain artekoa laburtzeko, daukagun funtzio buruen hierarkia hauxe da, beraz:

- (51) [DnbS Dnb [PolS Pol [ErgS IS<sub>Erg</sub> [DatS IS<sub>Dat</sub> [LagS Lag [AbsS IS<sub>ABS</sub> [ModalS Mod [AspS Asp [as a  
 [AS A

Orduan, modalen analisi hau zuzen baldin badago, eta gainera Laka (1988, 1993), Cheng eta Demirdache (1993) eta Arregi eta Molina-Azaola (2004) lanei jarraitzen baldin badiegu laguntzaileak buru-adjunzioaren bidez eraikitzen direla onartzean, (48)-ko datuak komunztadura buruak Inflexio Sintagmaren barnean goian batzen direlako proposamenaren alde daude. Hau da, datibo kasua eta absolutibo kasua erkatzen dituzten buruak behean batzen baldin badira –hau da *Apl* eta aditz txikiaren posizio kanonikoetan– *modal* buruak komunztadura buruen mugimendua eragotzi beharko luke. Hau da, mugimendu honek Buru Mugimenduaren Baldintza bortxatuko luke (Travis 1984).<sup>11</sup>

<sup>11</sup> Baliteke antzeko arazo bat *Aspektu* buruaren kasua izatea. Aspektu burua posizio estandar batean batzen baldin bada –hau da, aditz txikia baino gorago– buru honek ere eragotzi beharko luke mugimendua, komunztadura buruak AS anizkunean baldin badaude. Hala ere, ikus Elordieta (2001: 2.kap) eta Adger eta Tsoulas (2004). Proposamen hauetan Asp aditz txikiaren azpian kokatzen da.

(52)  $[_{Dnb} \text{ Abs+Dat+Erg+Dnb } [_{\text{Modals}} \text{ nahi/behar } [_{\text{AspS}} \text{ Asp} [_{\text{aS}} t_a [_{\text{ApIP}} t_{\text{ApI}} [_{\text{AS}} \text{ A}$



Beraz, modalen analisi hau zuzen baldin badago, eta BMB onartzen baldin badugu, badirudi absolutibo kasua eta datibo kasua erakartzen dituzten buruek modalak baino gorago batu behar dutela.

### 2.3 Erakusgarri antzeko eratorpen bat: hitzordena neutroak

Eratorpen batzuk ikus ditzagun proposamen honen erakuskari. Hitzordena neutro baten eratorpenarekin hasiko gara; gero ikusiko dugu hitzordena ez-neutro baten eratorpena. Beheko (54a-o)-ko urratsek (53) eratortzen dute:

(53) Anek filma ikusi du.

Ondoko (a)-(c) bitartean subjektua, aditza eta objektu zuzena elkartzen dira konfigurazio estandar batean:

- (54) a.  $(ikus, filma) \rightarrow [_{\text{AS}} ikus [_{\text{DS}} filma$   
 b.  $(a, \text{AS}) \rightarrow [_{\text{aS}} \emptyset [_{\text{AS}} ikus [_{\text{DS}} filma$   
 c.  $(Anek, a) \rightarrow [_{\text{aS}} Anek \emptyset [_{\text{AS}} ikus [_{\text{DS}} filma$

Hurrena, (d) urratsean, aspektu burua batzen da eta aditza honekin batzen da berriro:

- (54) d.  $(\text{Asp}, \text{aS}) \rightarrow [_{\text{AspS}} ikus-i [_{\text{aS}} Anek \emptyset [_{\text{AS}} \langle ikus \rangle [_{\text{DS}} filma$

Gero, absolutibo burua batzen da eta objektua bere espezifikatzaileira igotzen da:

- (54) e.  $(\text{Abs}, \text{AspS}) \rightarrow [_{\text{AbsS}} \text{abs} [_{\text{AspS}} ikus-i [_{\text{aS}} Anek \emptyset [_{\text{AS}} \langle ikus \rangle [_{\text{DS}} filma$   
 f.  $(filma, \text{AbsS}) \rightarrow [_{\text{AbsS}} filma \text{Abs} [_{\text{AspS}} ikus-i [_{\text{aS}} Anek \emptyset [_{\text{AS}} \langle ikus \rangle [_{\text{DS}} \langle filma \rangle$

Laguntzailearen erroa (g) urratsean elkartzen da, eta (h)-n ergatibo komunztadura burua. Honekin, laguntzailearen erroa eta absolutibo komunztadura burua berrelkartzen dira. Subjektua ergatibo buruaren espezifikatzaile mugitzen da:

- (54) g. (Lag, AbsS) → [<sub>LagS</sub> Abs+Lag [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* [<sub>aS</sub> *Anek* <...>
- h. (Erg, LagS) → [<sub>ErgS</sub> Abs+Lag+Erg [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* [<sub>aS</sub> *Anek* <...>
- i. (*Anek*, ErgS) → [<sub>ErgS</sub> *Anek* Abs+Lag+Erg [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* [<sub>aS</sub> <*Anek* ...>

Gero baieztapen burua batzen da eta BAI morfema isil bat elkartzen da bere espezifikatzailean:

- (54) j. (baiezt, ErgS) → [<sub>BaieztS</sub> ∅ [<sub>ErgS</sub> *Anek* Abs+Lag+Erg [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* <...>
- k. (BAI, baiezt) → [<sub>BaieztS</sub> BAI ∅ [<sub>ErgS</sub> *Anek* Abs+Lag+Erg [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* <...>

Hurrengo, (l) urratsean, Dnb elkartzen da eta honekin laguntzailearen beste buruak berbatzen dira:

- (54) l. (Dnb, BaieztS) → [<sub>Dnbs</sub> Abs+Lag+Erg+∅+Dnb [<sub>BaieztS</sub> BAI <∅> [<sub>ErgS</sub> *Anek* <Erg> [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* ...>

Azkenik, Pol batzen da eta BaieztS bere espezifikatzaile mugitzen da, azaleko hitzordena eraginez:

- (54) m. (Pol, DnbS) → [<sub>PolS</sub> ∅ [<sub>Dnbs</sub> Abs+Lag+Erg+∅+Dnb [<sub>BaiS</sub> BAI <∅> [<sub>ErgS</sub> *Anek* <Erg> [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* ...>
- o. (BaieztS, PolS) → [<sub>PolS</sub> [<sub>BaiS</sub> *Anek filma ikus-i* ] ∅ [<sub>Dnbs</sub> Abs+Lag+Erg+∅+Dnb <...>

Ezezeko perpausen eratorpenak berdinak izango dira, *ez* batzen deneko urratsa arte. Arestian ikusi dugun bezala, BAI morfema isila *ez* bezala, *ez*-ek ez du bere arreba PolS-ra garraiatzen, baizik eta utzi egiten du atzean. Proposamen hau ikusteko, (56)-ko urratsek (55) nola eratortzen duten erakusten da jarraian:

(55) Anek ez du filma ikusi

Segitzen duen eratorpena ezeztapen buru isila elkartzen deneko urratsekin hasten da. Urrats hau (54j) urratsari dagokio.

(56) (a-i; 54-an bezala)

- j. (Ezezt, ErgS) → [Ezezt ∅ [ErgS *Anek* Abs+Lag+Erg [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* <...>
- k. (*ez*, EzeztS) → [EzeztS *ez* ∅ [ErgS *Anek* Abs+Lag+Erg [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* <...>

Ondoren, (l) urratsean, Dnb elkartzen da eta honekin laguntzailearen beste buruak batzen dira berriro:

- (56) l. (Dnb, EzeztS) → [DnbS Abs+Lag+Erg+∅+Dnb [EzeztS *ez* <∅> [ErgS *Anek* <Erg> [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* ...>

Azkenik, Pol elkartzen da eta *ez* bere espezifikatzaile mugitzen da:

- (56) m. (Pol, DnbS) → [PolS ∅ [DnbS Abs+Lag+Erg+∅+ Dnb [EzeztS *ez* <∅> [ErgS *Anek* <Erg> [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* ...>
- o. (*ez*, PolS) → [PolS *ez* ∅ [DnbS Abs+Lag+Erg+∅+ Dnb <...> [EzeztS <ez> <∅> [ErgS *Anek* <Erg> [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* ...>

Eratorpen honek eragiten duen hitzordena –hau da, subjektua laguntzailearen eskuinean ageriz– trakets samarra da (cf Laka 1990: 29). Azterbide honetan beste mugimendu bat beharko litzateke (55)-eko hitzordena naturalagoa eratortzeko.

#### 2.4 Hitzordena ez-neutroak

Ortiz de Urbinari (1998) jarraituko diot topikoak eta fokuak InfS-ren gaineko posizioetara mugitzen direla onartzean (Rizzi 1997 Rizzi 2004, Rizzi and Shlonsky 2005). Hain zuzen ere, demagun euskararen ezkerreko periferiak egitura hau daukala:

(57) [...[\*TopS [FokuS [PolS ...

Informazio-egiturarako azterbide honi jarraituz, demagun fokuek eta topikoek [foku] eta [topiko] tasunak dauzkatela hurrenez hurren. Demagun, halaber, Top eta Foku buruetan dauden balioztatu gabeko tasunek tasun hauek *zundatzen* dituztela, eta tasunen bategite honek topikoen eta fokuen mugimendua eragiten duela.

Honen guztiaren erakusgarri, ikus dezagun, beraz, beste eratorpen bat. Adibide bezala, (58) perpausa har dezagun kontuan:

(58) Jonek FILMA ikusi du.

Eratorpen ez-neutroa eratorpen neutroak bezalakoxea izango da Foku burua elkartzen deneko urratsa arte. Puntu honetan, fokua [espez, PolS] gunean dagoen osagaitik ateratzen da eta [espez, FokuS] gunera igotzen da:

(59) [FokuS *FILMA* ∅ [PolS [BaieztS *Anek* <*FILMA*> *ikus-i* ] ∅ [DnbS Abs+Lag+Erg+Dnb  
<...>

Gero, Top buruak elkartzen dira eta topikoak berauen espezifikatzaileetara mugitzen dira. Mugimendu honek (60)-eko azaleko hitzordena eragiten du:<sup>12</sup>

<sup>12</sup> Topikoak perpausaren eskuin aldean ere ager daitezke, (i)-n bezala. Gainera, hiztun batzuentzat, topikoak aditzaren eskuinean ere ager daitezke, (ii)-an bezala (ikus Ortiz de Urbina 2002):

(i) FILMA ikusi dut Anek.  
(ii) Anek ikusi du FILMA.



- (60) [TopS *Anek* ] Ø [FokuS *FILMA* ] Ø [PolS [BaieztS <*Anek*><*FILMA*>*ikus-i* ] ] Ø [DnbS  
Abs+Lag+Erg+Dnb <...>

Beraz, azterbide honek esan nahi du mugitutako XS-osagai batzuk ez daudela *izoztuak*, hau da, ez dagoela espezifikatzaileen barnetiko mugimenduaren debeku orokorrik (*pace* Ormazabal et al 1994, Müller 1998:124, Koopman eta Szabolcsi 2000:38, Takahashi 1994:62-66). Baldintza honen aldeko datuak subjektuaren baldintzaren ondorioetatik datoz:

- (61) \*Who did [a picture of <who>] please the guests?  
(62) Who did you see [a picture of <who>]?

Hala ere, ikuspuntu minimalista batetik, zaila da ikusten zergatik eragotzi beharko lukeen mugitutako XS batek honelako mugimendua (Gallego eta Uriagereka 2006a,b). Gainera, subjektuaren baldintzaren ondorio hauek nahiko aldakorrak omen dira hizkuntzarik hizkuntza (Takahashi 1994, Starke 2001).<sup>13</sup> Starkentzat (2001), adibidez, frantsesezko (63) ez da askoz okerrago, objektu posiziotik mugimendua duen perpausarekin erkatuta:

- (63) ? De quel film est-ce que tu crois que [la première partie t] va créer un scandale?  
*‘Zein filmen lehen zatiak uste duzu sortuko duela eskandalua?’*  
(Starke 2001: 36-7)

Espezifikatzailearen baldintzaren beste kontradibide bat (64) bezalako datuetatik dator. Honelako aditz partikulen analisi estandar baten arabera, objektua partikularen gaineko posizio batera igotzen da. Hau zuzena baldin bada, alderantzizko besarkadurak adierazten du *every* zenbatzailea mugitutako XS batetik atera dela:

- (64) Some girl put a poster of every rock star up <a poster of every rock star> on her wall. <sup>14</sup>

---

Proposamen honen ikuspuntutik mugimendua gero beharko litzateke hitzordena hauek esplikatzeko; ez ditut fenomeno hauek lantzen lan honetan

<sup>13</sup> Ikus Collins (2005a,b).

<sup>14</sup> Antzeko adibide bat (i) da. Hau ere hiztun guztiek ez dute onartzen:

(i) [A different critic considered [a film on each topic]; likely [t<sub>i</sub> to [t<sub>i</sub> cause a scandal.]  
*‘Beste kritikari batek iritzi zion gai bakoitzaren inguruko film batek eskandalua sor zezakeela’*  
?? each > a

*‘Neskaren batek rock-izar bakoitzaren poster bat ipini zuen bere horman’*  
*? every > some (non A > B = A-k B-ren gaineko besarkadura du)*

Kontuan izan, era berean, determinatzaile definitu batek mugimendu hau eragozten duela. Honek iradokitzen du mugimendu hau (mugitutako osagai batetik egindakoa) *bona fide* azpiateratzea dela:

(65) Some girl loves the poster of every rock star.

*‘neskaren batek rock-izar bakoitzaren posterra maite du’*  
*\* every > some*

Euskararako antzeko izozte ondorioak Ormazabalek, Uriagerekak eta Uribe-Etxebarriak (1994) deskribatzen dituzte. Diotenez, urruneko NZ-mugimendua posible da, mendeko perpausa bakarrik *in situ* gelditzen bada. Mendeko perpausa mugitzen baldin bada, berriz, mugitutako osagaitik azpiateratze hau zailagoa da:

- (66) a. Zer esan dizute [entzun dutela [t irakurriko dutela Peruk]]  
 b. \*Zer<sub>i</sub> esan dizute [[t<sub>i</sub> irakurriko duela Peruk]<sub>j</sub> entzun dutela t<sub>j</sub>]  
 (Ormazabal, Uriagereka and Uribe-Etxebarria 1994)

Hala ere, euskaraz ere badirudi NZ-mugimendua beste testuinguru batzuetan posible dela:

- (67) Nori<sub>i</sub> uste duzu [ [t<sub>i</sub> emateko]<sub>j</sub> esaten diotela t<sub>j</sub>]? (Beñat Oyharçabal, k.p.)  
 (68) Norekin<sub>i</sub> pentsatu duzu [[ t<sub>i</sub> ezkondu behar naizela]<sub>j</sub> esaten diotela t<sub>j</sub>]? (Elordieta 2007)  
 (69) Nora<sub>i</sub> entzun duzu [[ t<sub>i</sub> eramateko]<sub>j</sub> eskatu diotela t<sub>j</sub>]? (Elordieta 2007)

Datu hauek, beraz, iradokitzen dute (66b) adibidearen txartasuna ez dela mugitutako osagai batetik ezer azpiateratzearen kontrako debeku orokor bategatik, mendeko perpausen beste ezaugarri bategatik baizik.

### 3. Ondorioen laburbilpena

Lan honetan, euskal perpausak oinarrizko *espez-buru-osagarri* ordena duelako hipotesiaren alde argudio batzuk aurkeztu ditut. Lehendabiziko zatian proposatu dut analisi antisimetriko batek partikula ebidentzialen hitzordena eta besarkaduraren jokabidearen berri hobeto ematen duela azterbide ez-antisimetriko nagusiek baino (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1990, Elordieta 2001). Bigarren zatian, objektuen hitzordenaren analisi antisimetriko bat garatu dut. Bereziki, objektuak perpausean goiko komunztadura posizioetara mugitzen direla proposatzen dut. Analisi alternatibo honek Haddicanen (2004) analisiak dituen arazo enpiriko eta teoriko batzuk saihesten ditu, baina antisimetriari eusten dio. Proposamen honek, zuzena baldin bada, iradokitzen du azpiateratzearen kontrako debekua ez dela orokorra. Hala ere, azpimarratu behar da proposamen hau behin-behinekoa baino ez dela; lan gehiago behar da analisi honen inplikazioak hobeto ulertzeko.

### Aipamen bibliografikoak

- Adger, David eta George Tsoulas. 2004. "Circumstantial Adverbs and Aspect". In Jennifer R. Austin, Stefan Engelberg eta Gisa Rauh (arg.), *Adverbials: The interplay between meaning, context and syntactic structure*. Amsterdam/Philadelphia: Benjamins. 45-66.
- Arregi, Karlos. 2001. "Focus and Word Order in Basque". Eskuizkribua, MIT.
- Arregi, Karlos eta Gainko Molina-Azaola. 2004. "Restructuring in Basque and the Theory of Agreement". In *Proceedings of the 23rd West Coast Conference on Formal Linguistics*. Somerville, MA: Cascadilla Press. 43-56.
- Cardinaletti, Anna eta Ur Shlonsky. 2004. "Clitic Positions and Restructuring in Italian". *Linguistic Inquiry* 35:4, 519-557.
- Cheng, Lisa eta Hamida Demirdache. 1993. "External Arguments in Basque". In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Philadelphia: Benjamins. 71-87.
- Cinque Guglielmo. 1993. "A null theory of phrase and compound stress". *Linguistic Inquiry* 24, 239-298

- Cinque, Guglielmo. 1999. *Adverbs and Functional Heads: A Cross-Linguistic Perspective*. Oxford: Oxford University Press.
- Cinque, Guglielmo. 2004. "Restructuring' and Functional Structure". In A. Belletti (arg.), *Structures and Beyond*. Oxford: Oxford University Press. 132-191.
- Collins, Chris. 2005a. "A Smuggling Approach to the Passive in English". *Syntax* 8:2, 81-120.
- Collins, Chris. 2005b. "A Smuggling Approach to Raising in English". *Linguistic Inquiry* 36:2, 289-298.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT Dissertation Series.
- Elordieta, Arantzazu. 2004. "Prosodiaren eta egitura konfigurazionalaren arteko eraginez". In P. Albizu eta B. Fernandez (arg.), *Euskal gramatika XXI. Mendaren atarian: arazo zaharrak, aztebide berriak*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. 39-59.
- Elordieta, Arantzazu. 2007. "OA hizkuntzak: oinarrizko hurrenkeraz eta hurrenkera eratorriez". Liburu honetan.
- Elordieta, Gorka. 1997. *Morphosyntactic Feature Chains and Phonological Domains*. Doktorego tesia. University of Southern California.
- Etxepare, Ricardo. 2003. "Menpeko infinitiboak eta urruneko komuntadura euskaraz". *Lapurdum* 8, 167-206.
- Etxepare, Ricardo. 2006. "Long distance number agreement in (substandard) Basque". *ASJU* 40: 1-2, 303-350.
- Gallego, Angel eta Juan Uriagereka. 2006a. "Conditions on Sub-Extraction". Eskuizkribua. Universitat Autònoma de Barcelona eta University of Maryland at College Park.
- Gallego, Angel eta Juan Uriagereka. 2006b. "Sub-extraction from Subjects: A Phase Theory Account". Eskuizkribua. Universitat Autònoma de Barcelona eta University of Maryland at College Park.
- Haddican, Bill. 2004. "Sentence Polarity and Word Order in Basque". *The Linguistic Review* 21:2, 81-124.
- Johnson, Kyle. 1991. "Object Positions". *Natural Language and Linguistic Theory* 9, 577-636.
- Kayne, Richard. 1989. "Facets of Romance Past Participle Agreement." In P. Benincà (arg.), *Dialect Variation and the Theory of Grammar*. Dordrecht: Foris. 85-103.

- Kayne, Richard S. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge MA: MIT Press.
- Koopman, Hilda eta Anna Szabolcsi. 2000. *Verbal Complexes*. Cambridge MA: MIT Press.
- Laka, Itziar. 1988. "Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque". *ASJU* 22:2, 343-366.
- Laka, Itziar. 1990. *Negation in Syntax. On the Nature of Functional Categories and Projections*. Doktorego tesia, MIT.
- Laka, Itziar. 1993. "The Structure of Inflection". In J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam/Philadelphia: Benjamins. 21-70.
- Müller, Gereon. 1998. *Incomplete category fronting*. Dordrecht: Kluwer.
- Ndayiragije, Juvénal. 1999. "Checking Economy". *Linguistic Inquiry* 30:3, 399-444.
- Ormazabal, Javier, Juan Uriagereka eta Myriam Uribe-Etxebarria. 1994. "Word order and wh-movement: towards a parametric account". *Glow* 17 jardunaldietan aurkeztutako txostena, Vienna.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. "Verb Initial Patterns in Basque and Breton", *Lingua* 94, 125-153.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1998. "Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque". In J. Franco, A. Landa eta J. Martín (arg.), *Grammatical Analyses in Basque and Romance Linguistics*. Amsterdam/Philadelphia: Benjamins. 179-194.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2002. "Focus of Correction and Remnant Movement in Basque". In X. Artiagoitia, P. Goenaga, eta J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: ASJUren gehigarriak-EHU. 511-524.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2007. "Indar Sintagmak, Foku Sintagmak, eta ezkeraldeko buruak euskarari". Liburu honetan.
- Reinhart, Tanya. 1995. "Interface Strategies". *OTS Working Papers*.
- Rizzi, Luigi. 1997. "The Fine Structure of the Left Periphery". In L. Haegeman (arg.), *Elements of Grammar*. Dordrecht: Kluwer. 281-337.
- Rizzi, Luigi. 2004. "On the Form of Chains: Criterial Positions and ECP Effects". Eskuizkribua, University of Siena.
- Rizzi, Luigi and Uri Shlonsky. 2005. "Strategies of Subject Extraction". Eskuizkribua, University of Siena eta University of Geneva.

- San Martin, Itziar eta Juan Uriagereka. 2002. "Infinitival Complementation in Basque". In X. Artiagoitia, P. Goenaga, eta J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: ASJUren gehigarriak-EHU. 597-609.
- Sauerland, Uli. 1999. "Erasability and Interpretation". *Syntax* 2:3, 161-188.
- Starke, Michael. 2001. *Move dissolves into Merge: A theory of Locality*. Doktorrege Tesia, Université de Genève.
- Takahashi, Daiko. 1994. *Minimality of movement*. Doktorrege Tesia, University of Connecticut, Storrs.
- Travis, Lisa de Mena. 1984. *Parameters and Effects of Word Order Variation*. Doktorego tesia, MIT.
- Uribe-Etxebarria, Myriam. 2003. "Euskararen eta Hizkuntza erromanikoen foku egituren arteko zenbait paralelotasunez". In J. M. Makatzaga eta B. Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian. Gramatika gaiak. Iker-14 (1)*. Bilbo: Euskaltzaindia. 37-160.
- Uriagereka, Juan. 1999. "Minimal Restrictions on Basque Movements". *Natural Language and Linguistic Theory* 17, 403-444.
- Vicente, Luis. 2005. "Word order permutation in Basque as non-feature driven movement". Eskuizkribua, University of Leiden.
- Wurmbrand, Susanne. 2001. *Infinitives: Restructuring and Clause Structure*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter.
- Zanuttini, Raffaella. 1994. "Re-examining Negative Clauses". In G. Cinque, J. Koster, J.-Y. Pollock & R. Zanuttini (arg.), *Paths towards Universal Grammar. Studies in Honor of Richard S. Kayne*. Washington: Georgetown University Press. 427-451.
- Zanuttini, Raffaella. 1997. *Negation and Clausal Structure: A Comparative Study of Romance Languages*. New York/Oxford: Oxford University Press.

*Bill Haddican*

<wh506@york.ac.uk>

*Department of Language and Linguistic Science*

*University of York*

*Heslington, York YO10 4DD, UK*